

Kulturgintza

Diru laguntzak

Alegintza vs. Ahalegintza

Sugeak begiratzen dionean txoria nola, halaxe geratzen da bat baino gehiago auzoko arbolan sagar ale bikain biribila ikustean: liluraren liluraz zorabiatuta. Eta halaxe hartzen dute erabaki estrategiko nagusia: “Horrelako ale mardulak behar ditugu gurean ere, auzoan estima gaitzaten!”

HORTIK AURRERA, zoroan habia eginda, alegintzara bideratzen dira baliabideak oro, alea ez den beste guztiaz ahaztuta. Egin ditzagun, buztinez, argizariz edo plastikoz bada ere, sagar ale ikusgarriak.

Sagarrak, ordea, adaxka du euskarri ezinbesteko, eta adaxkak adarra, eta adarrak enborra, eta enborrak sustraiak, eta sustraiak lurra, eta lurra ere ez du berea emango behar adina euri eta ongari ez baditu. Ekosistema egoki bat eta ahalegintza luzea, horra benetako sagarrak sortzeko bide bakarra.

Liburu baten atzean –edo azpian– idazle bat dago aurren-aurrenik. Hurrena, liburua argitaratzeko arriskua hartzen duena, argitaldaria. Ezinbesteko bi osagai horiez gain, banatzaileak, kritikak, liburu-saltzaileak, erosleak eta irakurleak osatzen dute liburuaren ekosistema.

Argitaletxeak badu, liburua esaten diogun objektu fisikoa erditzeaz gain, beste funtzio bat, oso garrantzitsua: galbahearena, gustuak gustu kaleratzen diren liburuak gutxieneko maila dutela ziurtatzea. Alde horretatik, interes orokorreko erakunde izendatu behar lituzkete argitaletxeak (funtzio hori betetzen dutenak behintzat).

Sagarra sagarrondotik eta liburua argitaletxetik, horra gauzak nola sortzen diren. Liburgintza sendotu nahi bada, argitaletxeak zaindu behar dira, eta ureztatu, eta ongarritu.

JOXERRA GARZIA

Laguntza sistema honek apenas balio duen horretarako, diskriminaziorik eza baitu irizpide. Durangoko Azokak urteko diru balantzak orekatzeko balio diezaieke literatur argitaletxeari, baina sekulako disfuntzioak sortzen dizkie lan prozesuetan. Euskadi Sariak, primeran antolatuko balira ere, lustre huts dira, eta zoro lana da hutsari distira ateratzen saiatzea. Hedabideek, oro har, gertakari soziazat hartzen dute liburua, eta, salbuespen gutxi-gutxi batzuk salbu, nekez eskaintzen dute kritika izena merezi duenik. Azken datuen arabera, irakurle sutsuak omen gara euskaldunak... Horrela dela sinetsita ere, ez da behintzat izango eskolak literatur zaletzen gaituelako...

Sistemak halako gabeziak dituela, Kafkari berari kafkianoak irudituko litzaizkioke gure eztabaidak, bai Euskadi Sarien ingurukoa, bai gizon ikusezinaren betaurrekoen sexuari buruzkoa.

Txarrena da kulturaren gainerako esparruetan ere oso antzekoak direla gauzak, aleari begira ari garela denetan, sistemaren osotasuna ahaztuta.

Norbaitek esango dit Kulturaren Euskal Plana bezalako ekimenak horretarakoxe daudela, kulturaren sistema bere osoan aztertu eta hobetzeko, esparru bakoitzeko eragileekin elkar lanean. Ekimen horren kide naizen aldetik, ez dut nik ukatuko gustura atera nintzela orain arte egon naizen bilera bakarretik, funtsezko kontuei heltzeko borondate zintzoa ikusita.

Ahozkotasanaren alorrean mundu mailako erreferentzia izan daitekeen *Mintzola* egitasmoa behar bezala mamitzeko ere, lan handia egiten ari dira, isil-isilik, hainbat jende, elkarte eta erakunde.

Bai, bada ahalegin zintzorik bazterretan. Hain zuzen horrexegatik da amorragarriagoa esparru jakin bat indartzen erabiltzen den dirutzaren pareko dirutza ale bakar batean gastatzen dela ikustea. Izena izen, ale distiratsu horrek, zerbait indartzekotan, ez baitu etxea indartuko, auzoa baizik.

Alegintzak apeta du orube; ahalegintzak, aldiz, estrategia. Nik garbi daukat zein orubetan eraiki behar genukeen gure etxea. ■



G.B.